

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI FUTBOLA

Gizonezkoen bi taldeak, Zubipen berotzen hasiak

Aldaketa nabarmen batekin hasi dute aurrendenboraldia CD Hernaniko mutilen bi talde nagusiek: entrenatzailea aldatu dute. Alain Gerekaetxeberriak gidatuko du aurten Jubenil Nazional Ligako taldea; eta Unai Munduate izango da Ohorezko Erregional mailako entrenatzailea.

BATZUENTZAT bukatu dira aurtengo oporrak eta dagoneko lanean jarriak dira. Horien artean dira, hain zuzen, futbolariak, baita Hernanin ere. Aste honetan zapaldu dute Zubipe CD Hernaniko aurreneko jokalariek.

Jubenil Nazional Ligako mutilak izan ziren aurrenekoak, astelehen arratsaldean; eta gauza bera egin zuten Ohorezko Erregional Mailakoek, hurrengo egunean, asteartean.

Bi taldeek nobedade nabarmen batekin: entrenatzaile berria dute. Bi taldeen artean trukatu egin dituzte, gainera.

Unai Munduate Jubenil Nazional Ligako entrenatzaile izan zen 2018-2019 denboraldian, eta Ohorezko Erregional Mailakoa izango da, denboraldi berrian. Eta aldiz, Alain Gerekaetxeberriak, Ohorezko Erregional maila gidatuzetik, Jubenil Nazional Ligako taldea entrenatzera pasa da, orain.



Astelehenean jaitsi ziren Zubipera lehenengoz Jubenil Nazional Ligako mutilak.

Baja nabarmenak, Ohorezko Erregional Mailan

Hain zuzen, talde tekniko berriek eta jokalariek aurreneko kontaktua izateko unea izan zen lehenengo entrenamendu hori.

Horretan sakontzeko erabiliko du, besteak beste, aurrendenboraldiaren hasiera Unai Munduate erregionalen entrenatzaileak: «hasierako helburuak dira: batetik, talde tekniko berria eta jokalariek elkar ulertzea eta erritmoak martxan jartzea; eta bestetik, jokalariei berriekin ere, taldea sortzea», azaldu du.

Behin hori lortuta, beharrezko guztia lantzeari eta taktikoki prestatzeari ekingo diote: «gero, partiduz partiduz joatea izango da garrantzitsuenak; edozein aurkari errespetatu, eta astea ondo prestatzea», Munduateren hitzetan.

Horretarako, fitzaketa aldetik, taldeari bultzada eman behar izan diotela dio: «lauz-pabost baja nabarmen izan dira eta, ondorioz, lerro guztiak indartu ditugu».



Zelai txikian eman zituen aurreneko azalpenak Unai Munduatek.

Partiduz partidu, Jubenilek ere

Partidu bakoitzaren garrantzia azpimarratu du, baita ere, Alain Gerekaetxeberria Jubenil Nazional Ligako entrenatzaile berriak. Aurtengo helburutzat dauka «partidu guztiak lehia-tzea, eta talde kohesio sendoa izatea». Hortik aurrera, «partiduz partidu» joatearen garrantzia azpimarratu du au-

rredenboraldia hasi berritan.

Bere figura da taldean izan den aldaketa nabarmena, horregatik, azaldu du pertsonalki bere helburua dela «maila eta taldea ezagutzea».

Lan horren emaitza, aldiz, ez dugu irailera arte ikusiko, orduan hasiko baitute 2019-2020 denboraldi berria bai Erregionalak, baita Jubenilek ere. ■

■ HERNANI ODOL EMATEA

Abuztuko zita, etzi

Nahiz eta udara izan, odolaren beharrak bere horretan jarraitzen du. Hori dela-eta, hileroko zitari ez dio hutsik ere egiten Hernaniko Odol Emaileen taldeak. Ohi bezala, hileko aurreneko asteartea izanda, etzi izango dute hitzordua odola eman nahi duten hernaniarrek. Arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara izango da horretarako aukera, anbulategian. Bertan, organu-emaile egiteko aukera ere izango da. ■

■ HERNANI ETXERAT ELKARTEA

Aldarrikapenak gaur, Oriora

Etxerat ElkarTEak deituta, Euskal Herriko hondartzetara eramango dute gaur «salbuespen espetxe politikarekin amaitzeko» aldarrikapena. Urtero bezala, tartean izango dira hernaniarrak; haiek Orion elkartuko dira. Bertara joateko zita Hernanin senideek duten lokalaren (aristizabal, 5) parean jarri dute, 11:00etan. Handik, kotxez joango dira Oriora. ■

■ HERNANI ZIKUÑAGAKO AMA AUZO ELKARTEA

«Mila esker etorri zineten guztioi»

Urumea ibaia garbitzeko deia egin zuen Zikuñagako Ama auzo elkarTEak uztailaren bukaeran, eta horren inguruan, oharra bidali du. «Zikuñagako auzotarrek lan txukuna egin dute ibaiaren garbiketean. Tristura handia ematen du ibaiaren 150 hauetan atera den guztia ikusteak: motorra, eguberritako zuhaitz bat, ordenagailua, xestuak, arropak, beira eta iltzeak, plastikoak, zigarroak... izugarritzko zikinkeria pila», azaldu dute. Eta galdetzen dute: «nola egongo da ibaia beste lekuetan?». Hori dela-eta, Zikuñaga auzoak berriro ere eskatu dio bertaritzen den orori: «inguruaz gozatzera bazatoz, errespetatu eza-zu!». Esker hitzekin eman diote bukaera oharrari: «Mila esker etorri zineten guztioi». ■

Argazkiak: CD HERNANI FUTBOLA

ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI

ANTZIOLA
OKINDEGIA

GOIZ-EGUZKI
TABERNA

ABUZTUAN
EGUNEKO MENUA

ASTEARTETIK LARUNBATERA
AFARIAK ERE BAI

TERRAZA ZORAGARRIA

Atzieta kalea, 16 - Hernani
943 55 32 04

Funeraria
VASCONGADA

Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

EGURALDIA GAUR Zeru estalita egongo da, eta zirimiria egingo du, goizean. Arratsaldean hobera egingo du, baina hala ere, lainotua mantenduko da. Tenperatura nabarmen jaitsiko da. **Min.18° / Max.22°**

BIHAR Bihar antzera jarraituko du. Laino ugari izango dira, eta baliteke zirimiria egitea. Arratsaldean, ostarteak ireki daitezke. Tenperatura berdintsu mantenduko da. **Min.18° / Max.22°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Gomez** Kale Nagusia, 14 (Hernani) **943 554892** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI-ASTIGARRAGA DONOSTIAKO KLASIKOA



Hernaniarrek babes osoa erakutsi nahi izan zieten aurrenekoz parte-hartu zuten emakumeel.

Giro ederrean, baina azkar

Minutu luzez zain egon ondoren, Donostiako Klasikoa jokatzen aritu ziren txirindulariak ziztu bizian ikusteko aukera izan zuten hernaniar eta astigarrarrek. Goizean, emakumeen txanda izan zen; aurreneko aldiz jokatu zuten proba ezaguna; eta haiei animatzeko, jende ugari elkartu zen kalean. Eta eguerdian, gauza bera egin zuten gizonezkoekin. Helmuga, aldiz, Donostian izan zuten: Lucy Kennedy izan zen azkarrena, emakumeetan; eta Remco Evenepoel, aldiz, gizonetan. ||



Herritar ugari elkartu zen Astigarragan gizonezkoak ikusteko.

HERNANI ZINEA



Galarretako Orona Ideo Donostiako aireportu bihurtu zuen atzo goizean Woody Allenek.

Aireportu bihurtu zuen Woody Allenek Galarretako Orona Ideo

Asteak daramazki Woody Allen zine-zuzendariak Donostiaren inguruko pelikula grabatzen, Gipuzkoan zehar, eta Hernanin ere izan da. Atzo egin zuen grabaketa; goizean goiz, Galarretako Orona Ideo eraikinarren behealdea Donostiako aireportu bihurtu zuen, eta eguerdi aldera, Ereñotzun izan zen. Ezer gutxi eman dute jakitera pelikularen eta grabaketaren inguruan. ||

HERNANI UDAPARKEAN EKIMENA



Ikuskizun ederra eskaini zuen Vaiven Circok atzo.

Eguraldia lagun, agur musikatua

Hiru egun eder pasa ondoren, atzo esan zioten agur hernaniarrek aurtengo Udaparkean ekimenari. Jardunaldiak eskatzen zuen moduan egin zuten gainera, kantuan eta bapo afalduz. *Bitartean* musika talde hernaniarra izan zuten lagun, horretarako. Musikarekin gozatu ederra hartu zuten aurretik, gazteek 2Z/O taldearekin, baita akrobazia eta gorputz mugimendurekin ere, Vaiven Circorekin. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Karmengo Jaiak

Kaxkoko Elkartearen partez, eskerrak eman nahi dizkiegu, Karmengo jaietan parte hartu duten eta laguntza eman diguten bizilagun orori. Beste urte batez, festa arrakastuak lortu ditugu denon artean, eta horregatik esker hitzak luzatu nahi ditugu.

Jazz taldeari ere mila esker, gure kaleetan jotzeagatik eta Kaxkoa aukeratzeagatik. Zuen musikarekin momentu paregabeak bizi izan ditugu.

Juncal Libertad
Dorronsoro Mocha
Kaxko Auzo Elkarte

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06

Emakume bat behar dugu jateke bateko sukaldean laguntzeko eta arraskako lanetarako. Kotxea beharrezkoa da. Deitu: 943 33 13 87

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA